


Sufragistei esker

Emakumeen boto-eskubidearen ibilbidea



1789

Frantziar Iraultzako ekintzen artean, emakumeek eta langileek Versaillesera egin zuten martxaren ondorioz, erregearen gorteak Parisera itzuli behar izan zuen. Martxa hartan, lehen aldiz eskatu zuten boto-eskubidea emakumeek.

Olympe De Gouges



1791

Emakumearen eta Emakumezko Herritarraren Eskubideen Adierazpena aurkeztu zuen Olympe de Gouges-ek Frantziako Asanblea Nazionalaren aurrean. Biltzar hartan Condorcet-ek ere gizonezkoentzat zein emakumezkoentzat eskubide berberak aldarrikatu zituen, arrazoibide argiak erabiliz.

Mary Wollstonecraft



1792

Emakumeen eskubideen erreibindikazioa liburua idatzi eta argitaratu zuen Mary Wollstonecraft ingelesak (Mary Shelley idazlearen ama). Feminismoaren oinarriak agertzen dira liburu horretan. Idazle profesional gisa Parisen eta Londresen bizitzea lortu zuen Wollstonecraftek, eta hori oso emakume gutxik lortzen zuten.



1832

Mary Smith-ek Ingalaterrako Komunen Ganberan emakumeen eskubide politikoaren alde egin zuen.



1848

Emakumeen eskubieen inguruko munduko lehen batzarra egin zen New Yorken, Seneca Falls-eko Deklarazioa izenez ezaguna. Batzarraren erabakietan berdintasun juridikoa aldarrikatu zuten arlo hauetan: ezkontzan, jabe goan, soldatan eta seme-alaben zaintzan.



1857

Ehungintzako eta jantzigintzako emakume langileek greba handi bat egin zuten New Yorken, martxoaren 8an, eta, jasaten zituzten lan-baldintza penagarriak salatzeke, hiriko auzo xumeenak hartu zituzten.



1868

John Stuart Mill-ek parlamentuan zuen eserlekua galdu zuen emakumeentzat boto eskubidea defendatzeagatik. Urtebete beranduago *Women's slavery* liburua eman zuen argitara, mugimendu sufragistarentzat oinarri teorikoa izango zena.



1869

Wyoming (AEB) izan zen munduan lehen estatua emakumezkoei boto eskubidea aitortzen, eta 1920an AEBko emakume zuri guztiek bozkatu ahal izan zuten.



1893

Munduan Zeelanda Berria izan zen emakumezkoei boto eskubidea eman zien lehen estatua, Kate Sheppard-ek gidatutako mugimenduari esker.

Millicent
Garrett Fawcett



1897

Europari dagokionez, Erresuma Batuan hedatu zen mugimendu sufragista beste inon baino lehenago. Parlamentuan, emakumei boto-eskubidea emateko eskaera asko aurkezten ziren, baina ez zituzten onartzen. Hori dela eta, 1897an, Elkarte Sufragisten Batasun Nazionala (NUWSS) sortu zen, Millicent Garret Fawcett buru zela.



1902


Australiako Hego Australia estatuan sufragio unibertsala onartu zen eta emakumei hauteskundeetan hautagai izateko aukera ere eman zitzaion.

Emmeline Pankhurst



1903

Women's social and political Union sortu zuten, Alderdi Laboristaren barruan emakumezkoen erakunde propio gisa. Emmeline Pankhurst izan zen erakunde horren bultzatzaile indartsuenetakoa bat, eta emakumeentzat boto eskubidea lortzea izan zuten helburu nagusia. Politika-bideak eta protesta baketsuak hasi ziren erabiltzen, baina ez zuten ez emaitza handirik lortzen, ez zioten uko egin poliziaren kontrako liskarrei, eta askok kartzelan bukatu zuten.



1907

Emakumeek lehen aldiz bozkatu ahal izan zuten Europan; Finlandian, hain zuzen ere. Eta bertan lortu zuten emakumeek lehen aldiz parlamentuan eserlekua hartzea.



1908

New York. Martxoaren 5ean ehungintzako emakume langileek greba hasi zuten soldata gizonezkoenarekin parekatzea lortzeko, eguneko lanorduak 10era gutxitzeko eta umeei titia emateko baimena lortzeko. Martxoaren 8an Sirtwoot Cotton ehungintzako fabrika suak hartu zuen, eta 129-146 emakume hil ziren bertan kiskalita; sua fabrikako jabeak berak piztu zuen langileak bertan itxi zirelako. Mundu osoa astindu eta ikaratu zuen berri horrek.

Emily Wilding
Davidson




1913

Emily Davidson sufragista zaldi batek harrapatuta hil zen Epsom-go zaldi-lasterketa ospetsuan, mugimendu sufragistaren koloreak zituen zapi bat parte-hartzaileetako bati jartzen saiatzean. Haren heriotzak borroka sufragista zabaltzeko eta bultzatzeko balio izan zuen.



1919

Lehen Mundu Gerrak aldaketa ekarri zuen: Herbehereetako, Amerikako Estatu Batuetako (1920), Erresuma Batua (1918) edo Errusiako (1917) emakumeek sufragio unibertsala eskuratu zuten.



1920

AEBko Konstituzioari egindako XIX. zuzenketa onartu zen. Beraz, adin nagusiko emakume zuri guztiek lortu zuten boto-eskubidea. Emakume beltzek, aldiz, ezin izan zuten bozkatu 1967. urtera arte.

Clara Campoamor



1931

Espanian, parlamentuak errepublikako konstituzio berria onartu zuen abenduaren gan. Clara Campoamor diputatuak garrantzi handia izan zuen konstituzio hori idazteko orduan; izan ere, berak lortu zuen 36. artikulua onartzea. Artikulu horrek emakumeentzat mugarik gabeko boto-eskubidea onartu zuen.



1933

Espaniako Bigarren Errepublikan Euskal Autonomia Estatu-tua aldarrikatzeko hauteskundeak egin ziren azaroaren 5ean. Hauteskunde horietan, Eibarren, lehen aldiz eman zuten botoa euskal emakumeek. Estatu espainiarreko emakumeek, aldiz, 1933ko azaroaren 19ko hauteskunde orokorretara itxaron behar izan behar izan zuten bozkatzeko.

1948

Nazio Batuen Erakundea



1948

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) *Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala* onartu zuen, emakumeen botoa giza eskubide unibertsal zela onartzen zuena: "Pertsona orok du bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean edo askatasunez aukeratu-tako ordezkarien bidez".



2015

Saudi Arabian 2015eko abenduaren 12ko hauteskundeetan eman zuten emakumezkoek lehen aldiz botoa.

Glosategia

BATZARRA. Bilera, bereziki erakunde batek dagozkion gaiei buruz hitz egiteko eta erabakiak hartzeko tarteka egiten duena; horrelako bilera batean parte hartzen duten lagun-multzoa.

ESPAINIAKO BIGARREN ERREPUBLIKA. 1931ko apirilaren 14an ezarri zen erregimen demokratikoa izan zen, alderdi errepublikanoek irabazi baitzituzten hauteskundeak eta Alfontso XIII.a erregea erbesteratu egin zen. Errepublika 1939ko apirilaren 1ean bukatu zen, Franco jeneralaren diktadura ezarri zenean.

ERROLDA-SUFRAGIOA. Hauteskunde-sistema bat da, botoa emateko eskubidea pertsona-talde jakin batzuei bakarrik aitortzen diena; botoa eman ahal izateko, zenbait baldintza bete beharra dago, adibidez, errenta jakin bat edo halako aberastasun-maila bat izatea.

FEMINISMOA. Gizartean emakumeen eskubideak bultzatzea bilatzen duen mugimendu soziala eta politikoa da. Pentsamendu feministak emakumeak gizarteko maila guztietan (politikan, lan munduan, familian, etab.) duen egoera hobetu eta emakume eta gizonen arteko parekotasuna lortu nahi ditu.

FRANTZIAKO IRAULTZA. 1789tik 1799ra Frantzian gertatutako gatazka gogor bat izan zen. Iraultza horren ondorioz, Luis XVI.a bota egin zuten erregetzatik, monarkia absolutua deuseztu egin zuten Frantzian eta aldaketa politiko eta sozial sakonak gertatu ziren. Horren ondorioz, Frantziako Errepublika sortu zen, gaur egun oraindik irauten duen egitura politiko nazionala. Borroka horretan, herritar xumeak (burgesia eta herri xehea) aristokraten pribilegioen aurka borrokatu ziren (nobleziaren eta elizgizon aberatsen aurka).

GIZA ESKUBIDEAK. Pertsona guztiek, gizaki izateagatik, izan behar ditugun eskubideak dira. Giza eskubideen oinarria da gizaki guztiok berdinak garela sexua, adina, nazionalitatea, jatorria, erlijioa, hizkuntza, sexu-joera, posizio ekonomikoa edo bestelako ezaugarriak gorabehera.

JOHN STUART MILL (1806-1873). Erresuma Batuko filosofo, ekonomista eta politikaria izan zen. Haren filosofiaren oinarria zen ahalik eta pertson gehienentzat zoriona bilatzea. Gutxiengoaren eta klase behartsuen babesa defendatu zuen. Esklabotzaren aurka egin zuen, eta genero-berdintasuna aldarrikatu zuen.

LEHEN MUNDU GERRA. XX. mendearen hasieran (1914 eta 1918 bitartean) gertatu zen gerra handia izan zen; batez ere Europan gertatu zen, baina munduan garai hartan zeuden potentzia handi ia guztiek eta beste herrialde txiki askok ere parte hartu zuten.

Glosategia

MARIE-JEAN-ANTOINE NICOLAS DE CARITAT (1743-1794). Condorceteko markesa, frantses filosofo, matematikari eta politikaria izan zen. Iraultza frantsesaren garaian legebiltzarreko lehendakaria eta Konbentzioko diputatua izan zen. Irakaskuntza publikoaren erreformarako proiektu bat aurkeztu zuen. Girondarren taldekoa zenez, Luis XVI.aren exekuzioaren eta jakobinoek egindako konstituzioaren kontra bozkatu zuen, eta hiltzera kondenatu zuten horregatik. Zigorra bete aurretik hil zen kartzelan.

NBE-NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. Nazio Batuen Erakundea 1945eko urriaren 24an sortu zen. Gaur egun, 193 estatuk osatzen dute, eta helburu nagusi hauek ditu: nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzea, nazioen artean adiskidetasunezko harremanak garatzea, nazioarteko elkarlana lortzea eta nazioen ekintzak harmonizatzea.

SUFFRAGETTE. XIX. eta XX. mendeko emakume britaniar erradikal sufragistei jarri zitzaien izena da. Emakumeen sufragismoaren barruan, ekintza zuzenaren aldeko erradikal britaniarrak gainerakoengandik bereizteko erabiltzen den hitza da.

SUFRAGIO UNIBERTSALA. Adinez nagusiak diren herritar guztiei botoa emateko eskubidea ematen dien hauteskunde-sistema da. Hau da, adinez nagusia den herritarrak botoa emateko eskubidea du, edozein dela ere herritararen egoera ekonomikoa, sexua, arraza edo erlijioa.